

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 9.atala

DATA: 2024/06/07

GUREAN

GURE IKASLEAK, TABAKALERAN

DBHko 2. mailakoak Tabakalera egon dira aste honetan eta hiru lantegi egin dituzte. Lehendabiziko biak, GAME ON eta IRUDI TWO medialab izan dira. IRUDI TWO horretan, Irudi bat nahi adina aldiz errepikatzeko aukera ematen duten euskarriak sortuz, paper gaineko estanpazioaren munduan barneratu dira, iruditegi pertsonal bat sortzeko asmoz. Hirugarrena ere benetan erakargarria iruditu zitzaion. Serigrafia lantegian murgildu dira, TIN.TA! izenekoan. Izugarri ondo pasatzeaz gain, asko ikasi dute. Datorren astean, DBHko 3. eta 4. mailakoak Tabakalera izango ditugu.



GURE INGURUAN

LARRATXOKO JAIAK



Ekainak 8, larunbata

10:00 Diana Udal Txistularien eskutik.
12:00 Haur Danborrada Arraiketari txarangarekin, Txirritako plazatik.
16:30 Matraka Elektrotxaranga patioan.
18:30 Apar Festa Larratxoko eskolan.
19:30 VII. Rap lehiaketa Larratxoko eskolan.
22:15 RAP Festibala Larratxoko eskolan: Ayensa | Unotres Mobb | SNKT | El Negro.
23:30 Steve Music Larratxoko plazan.
23:30 90. hamarkadako rememberra Txirritako plazan.
00:30 Zezensuzkoa Larrotxoko plazatik.

Ekainak 9, igandea

11:00 Euskal Dantza Herri Ametsa ikastolako taldearen eskutik, Larratxoko plazan.
11:00 Herri Kirolak Larratxoko eskolan: Inaxio Perurena | Manolo Cañamares | Bea Tanko.
11:30 Erraldoi Topaketa eskolako patiotik.
12:00 XII.Sagardo Eguna Larratxoko eskolan; Revuelta Anaiak, Jexus Etxebeste eta Mikel Pollo-k girotuta.
16:30 Uretako zezanak eskolako patioan.
19:00 Roberto Urrutia eta bere Mariachiak Larratxoko plazan.
21:00 Jai amaierako traka.